



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Ostirala  
2010-05-07**

VIII. URTEA 1994. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

**ITSASO LEUNDA** KIROLARIA

## «Asteburua ondo joateak entrenatzeko indarra ematen dizu»

**HERNIALDE** Duatloian emaitza bikainak lortu ondoren triatloia du buruan; hilaren 15ean Ironcata probatuko du

**TXIRRINDULARITZA** Debabarrena taldean ari da eta aurreko asteburuan Erdoñanan lasterketa irabazi zuen s



E.MAIZ

**ION GURRUTXAGA**  
DJ BULL

### «Ingurukoek ere aurrera jarraitzeko esan didate»

**IRURA** Igandean Kazakhstanerako bidea hartuko du DJ Bull-ek; bertako diskoteka batean ariko da lanean sei hilabetez 4



Gazteak hilaren 29an iritsiko dira Bruselara. A.IMAZ

## Bruselara joateko deia egin du GaztEHerria ekimenak

**TOLOSA** Bidaiaz gain gazteek bertso afaria ere antolatu dute; hilaren 14an izango da Oargin 3

**TOLOSALDEKO EUSKAL  
ESKOLA PUBLIKOA**  
BATXILERGORO IRAKASGAIEI  
ESKAITZA ZABALA

**ORIXE TOLOSA**

**ORIXE**  
Biganen  
Irakaztea  
Tolosa

**BATXILERGOAK**  
Zientziak eta Teknologia  
Giza eta Gizarte Zientziak

943 65 13 87  
E-mail: [012900a@orixeta.net](mailto:012900a@orixeta.net) [www.orixa.net](http://www.orixa.net)

Aurrematrikula: [Matrikulazioa.gipuzkoa.net](http://Matrikulazioa.gipuzkoa.net)

# Merkataritza sendotzeko urrats berria

**Ekonomia** » Lau urterako hitzarmena sinatu dute Udalak eta merkatariek; 124.000 euro izango dituzte urtean.

## INIGO TERRADILLOS

Pasa den urteko azaroaz geroztik komertzio teknikaria dute Igarondo eta Alde Zaharra Dendak merkatariek. Herriko komertzioa sustatzea eta bi elkarteek bide beretik lan egitea dira teknikariaren egiteko nagusiak. Bada, elkartearen arteko lankidetzaz hori «sendotu eta modu eraginkorragoan lan egiteko» helburuz, pauso berria eman dute, Udalarekin sinatu duten lau urteko iraupena duen hitzarmena, hain zuzen.

Herenegun sinatu zuten akordioa Jokin Bildarratz Tolosako alkateak, Itxaropena Elordi Alde Zaharra Dendak elkarteko lehendakariak eta Anate Iturralde Igarondo elkarteko lehendakariak. Elkarren artean, era bateratuan lan egingo dute, eta helburua herriko komertzioa sustatzeko eki-

men egokiak bultzatu eta garatzeko lan egitea izango da.

**Komertzio gehien duen herria** Hitzarmenarekin adostu dutenez, 124.000 euro izango dituzte bi elkarteek urtean, komertzioa indartzeko. Erakunde publikoetatik nahiz pribatuetatik jasoko dute hori: 21.120 euro bi elkarteek jarriko dute, Tolosako Udalak 18.500 euro, eta gainerakoa Eusko Jaurlaritzak. Itxaropena Elordik adieraziz zuzenez, «jasotzen dugun dirua era egokiagoan kudeatu ahalko dugu horrela, erabilgarritasun hobea ematea lortuz».

Bestalde, Jokin Bildarratzek komertzioak herrian betetzen duen «funtzio garrantzitsua» nabarmendu zuen. «Lanpostuak ematen ditu, zerbitzuak eskaini eta giroa ematen dio herriari». Tolosaren kasuan, merkataritzak «berebiziko pisua» duela gehitu zuen: «515 komertzio ditugu orotara, eta guztien artean 1.000 lanpostu baino gehiago ahalbidetzen dituzte; Euskal Autonomia Erkidegoan 1.000 biztanleko komertzio gehien duen herria gara». Bilda-



Agustin Aduriz, Itxaropena Elordi, Jokin Bildarratz eta Anate Iturralde, herenegun, hitzarmena sinatzen. I.T.

rratzek dioen bezala, hori horrela da «apustu garrantzitsua egin delako eta egiten ari garelako, baina,

## «515 saltoki daude Tolosan, eta 1.000 lagun baino gehiagori ematen diote lana»

apostu hori guztien artekoa da eta horrela izaten jarraitu behar du, herriaguztiok eraikitzen baitugu».

## Tolosa, marka handi bat

Hala komertzioak «herrian duen pisuaz jabetuta», Tolosak kanpora begira izen edo marka handi bat

izatea interesgarria litzatekeela azaldu zuen Anate Iturralde Igarondo merkatariek elkarteko lehendakariak. «Halaber, izen horren barruan ostalaritza eta zerbitzuak ere batzea garrantzitsua izango litzateke».

## Urteko merkatariek onenari saria

Agustin Aduriz komertzio teknikariak, bere aldetik, etorkizunari begira aurreikusi dituzten ekimenak azaldu zituen. «San Joan jaie-tan boltsak eta kaleko dekorazioa jarriko ditugu, larunbatarratsaldetan kale dinamizazioarekin jarraituko dugu iaz bezala, Eguberrietako kanpaina sari garrantzitsu bat izango dugu aurten, eta lehen al-

diz, merkatariek onenari saria izango dugu». Burutu duten azken ekimena, Stock and Braderie azoka, hain zuzen, «arrakastatsua» izan zela eta esperotako helburuak bete zituela esan zuen komertzio teknikariak.

Merkatariek buruan duten beste gai bat herrian dauden lokal hutsak dira, eta horiek zerbitzu egin nahi dute; «batetik errodala bat egin nahi dugu, eta horretaz gain, erabilpen edo nolabaiteko irtenbide bat eman nahi genieke, izan ere, gure ustez ez da batere lagungarria itxita dauden lokalak egotea, itsusitu egiten du». Horretarako, erakundeek laguntza beharko dutela adierazi zuen.

## Laburrak

### Lau kontzertu gaur eta bihar Bonberenean

**MUSIKA** » Astebururo bezala, zuzeneko musikaz gozatzeko aukera izango da Bonberenean. Gaur, UK Bill eta Plan B taldeak ariko dira, eta bihar, Skaff-Links eta Emon. 22:30ean hasiko dira kontzertuak.

### Komunikazioari buruzko hitzaldia, Amarotzen

**GIZARTEA** » Amarozko Beti Gazteak elkarteak Komunikazioa eta adiskidetasuna, bizitzak osasuntsuaren giltzak hitzaldia izango da Miren Kar-mele Gurrutxagaren eskutik, hilaren 10ean, 18:30ean.

### Gurasoei zuzenduriko hitzaldiak Orixen

**HEZKUNTZA** » DBHko 1, 2 eta 3. mailako ikasleen gurasoei zuzenduriko hitzaldiak antolatuko dituzte Orixe institutuak. Lehena astelehenean, hilaren 10ean izango da, *Internet, gaztetxoak gizarte-sare berrietan: arriskuak eta aukerak* izenburupean. Bigarrena, ostegunean, hilaren 13an izango da, eta *Galdutako mugaketa arauak? Gurasoek ezetz esaten nola ikasi gaia* jorratuko dute. Hilario Garrudo psikologo klinikoak emango ditu, eta 18:30ean izango dira, Orixen bertan. Tolosako Udalaren diru laguntzari esker antolatuko dituzte.

## Nacho Vegasen kontzertua, gaur, Leidor aretoan

**Kultura** » Kutxa Kultur Zirkuituaren barruan ariko da musikari asturiarra; aurretik, hip hop musika eta graffitiak izango dira.



Nacho Vegas. HITZA

## ERREDAKZIOA

Kutxa Kultur Zirkuituak gaur egingo du gieldialdia Tolosan, eta igandera bitarte hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izango da. Horien artean, nabarmentzekoa da Nacho Vegasen kontzertua. Gaur izango da, 21:00etatik aurrera, Leidor aretoan, eta sarrerak ohiko moduan eskuratu ahaliko dira 10 euroren truke.

Bakarlarri asturiarrak folk eta rock musika lantzen ditu, eta bakarkak nahiz Las Esferas Invisibles taldearekin aritzen da. Manta Ray taldearen sortzailea izan zen. Vegasen zuzenekoaren aurretik, Rafael Berrio ariko da Leidorren.

Gaurkoak, baina, musikaz gain izango du beste osagirik, hip hopa eta graffitiak, hain zuzen. Kultur

## Emakumea eta lan munduari buruzko mahai ingurua, gaur, udaletxean

**Gizartea** » Berdintasunaren Aldeko I. Astearen baitan, herriko zubiak zeharkatuz ibilbidea egingo dute etzi.

## ERREDAKZIOA

Berdintasunaren Aldeko I. Astearen barruan, emakumea eta lan munduaren inguruan ariko dira gaur, 20:00etan hasita, udaletxean egingo duten mahai inguruan. Felisa Piedra (CCOO), Egoitz Iturbe (ELA), Oihana Lopetegui (LAB) eta Jose M. Diez (UGT) izango dira parte-hartzaileak eta Garbaine Biurrun moderatzailea.

Bestalde, etzi, Bederatzi zubi Berdintasunaren Alde izeneko ibilbidea egingo dute. Plaza Berri-tik abiatuko dira parte-hartzaileak 11:00etan, Txistulari Bandak la-gunduta. Zubi guztiak igaro ostean, Plaza Berrira bueltatuko dira, eta han berdintasunaren aldeko manifestua irakurriko dute. Ber-tsolariak izango dira, Udaberriko dantzariak eta Isidro Larrañaga Musika Eskolako musikariak.

Nor: larrañaga@terra.es Euskal Herriko produktuak, ekolizearengandik zure eskura

Euskal Herriko Plazan egiten ditudan erosketak kolektiboak dira. Erosketak nik egiten ditut, baina sortak gurasoekin banatzen ditut: zainzuriak, ez-tia, orburuak, hegala, lukainka, antxoak, piperrak, txakolina, ardoa... Erdiak haienztat eta beste erdiak niretzat.

**37,44 €**  
Erref.: 190011  
**Pedro Luis kontserbak**, zainzuri puntak, lodiak 228 ml-ko 12 poto

**50,08 €**  
Erref.: 340004  
**Ostargi kontserbak**, pikillo piper osoak 220 g-ko 12 poto

Beste produktu askoren artean, hauek topatuko dituzu Euskal Herriko Plazan.

www.euskalherriko**plaza**.com  
plaza@euskalherriko**plaza**.com

ETXEBERA  
LANERA  
EDONORRA

erosi gurean

# Eskualdeko gazte oro Bruselara gonbidatu ditu GaztEHerria ekimenak

**Politika** » Bidaiaren harira, Tolosaldeko kideek bertso afaria antolatu dute Oargi elkartearen hilaren 14ean, ostiralean.

## ASIER IMAZ

Tolosaldeko hainbat gaztek maizterako bi ekimen aurkeztu dituzte. Alde batetik, GaztEHerria deialdiarekin bat egin eta Bruselara joateko mezua zabaldu dute. Bestetik, bidaia honen harira, bertso afari bat antolatu dute Oargi elkartearen hilaren 14ean.

Bi ekimenetan parte hartzeko eskualdeko gazte orori deialdia luzatu diete: «Independentzia guztion artean eraikiko badugu, gazte ororen lana ezinbestekoa baitzaigul».

Bertso afarira edo Bruselara joan nahi dutenek txartel edo zerradak Tolosako Denak, Raku edo Meskal tabernetan aurkituko dituzte.

## » BERTSO AFARIA

### Hilak 14, ostirala

- **Non?** Oargi elkartearen.
- **Txartelak:** Denak, Raku eta Meskal tabernetan.

### «Tantaz tanta, olatua sortuz»

Eremu, arlo, herri zein auzo ezberdinetako gazteek hilaren azken asteberuan Bruselara joateko deialdia egin dute.

GaztEHerria ekimeneko kideak «independentzia amestu eta berari elkarlanean eraiki» nahi duten gazteak dira. Helburu hori gauza-

### «Etorkizuneko Euskal Herria gara eta etorkizunak izen bakarra dauka: Independentzia»

tzeko, gazteen iniziatibaren oinarritutako bidea abiatzera doa: «Etorkizuneko Euskal Herriagara eta etorkizunak izen bakarra dauka: Independentzia».



Eskualdeko GaztEHerria ekimeneko kideak Bruselara joateko deialdia egin dute. A. IMAZ

Izen bakarra izateaz gain, aukerabakar ikusten dute: «Euskal Herria osatzen duten zazpi lurraldeen luze-zabalean, beste eredu bat eraikitzeko tresna bakar moduan ulertzen dugulako. Askatasunaren egarriz gauden belaunaldia gara, eta independentziaren eskutik etorriko den askatasunaren sinesten dugu. Horregatik, bakoitzak bere eremutik, baina elkarlanean, tantaz tanta osatzen joango den gazte olatua sortzera goaz».

### Zergatik Bruselara?

Gazteen ustez Euskal Herria fase politikoa berria sartu da, «indarrak bildu eta independentziarako bidea geldiezina da».

Oztopoak aldiz, ez dituzte urrutik ikusten: «Ematen ari garen pausoez kontziente gara. Espainiar esta-

### «Espainiar gobernuaren izaera antidemokratikoa agerian utziko dugu hilaren 29an Bruselara»

tua ere kontziente da, eta hain zuzen horregatik saiaturiko da ahalik eta gehien oztopatzen ekindako bidea».

Dena den, irakurketa honen beste aldean, nazioarteko hainbat

pertsona esanguratsuk Bruselan egin zuten adierazpena eta jasotako elkartasuna aipatu dituzte: «Europar eta mundu osoan zehar asko dira inperialismoaren aurka borrokan ari diren herriak.

GaztEHerria Durangon egin zuen ekimenean nazioarteko ordezkariak zabaldu izan gauen, euskal gazteoi euren babesa eta elkartasuna azaltzeko».

Bruselarako bidaia, *Eskubide zi-*

## » BRUSELARA

### Hilaren 28, 29 eta 30ean

- **Deialdia.** GaztEHerria ekimena.
- **Txartelak.** Denak, Meskal eta Raku tabernetan.
- **Aurretik.** Irteera baino lehen eskualdean bilera informatiboa egingo dute. Zalantzak argitzeko.
- **Irteera.** Hilaren 28an, iluntzean Donostiatik.
- **Itzulera.** Hilaren 30ean, eguerdi-arratsalderako.

### Egitaraua

- **Hilaren 29an, Bruselan.** Larunbat goizean bertara iritsi. Eguerdian Europako Parlamentuaren aurrean ekitaldi batekin amaituko den manifestazioa. Arratsaldea Bruselan igaro eta iluntzean itzulerako autobusa.

*bil eta politikoen defentsan, «ez da kasualitatea»* eskualdeko GaztEHerria ekimeneko kideen ikuspuntutik: «Europar bi estatuk ukatzen dioten independentzia nahi duen herri oso bat dagoela ezinazteko joango gara. Zapatero Europako presidentzian den azken asteberua izango da gainera. Zapateroren eta bere gobernuaren, Espainiar estatuaren, izaera antidemokratikoa agerian utziko dugu Bruselara».



## Garagardoa, ukondoa, saltxitxak...

**IBARRA** • VII. Garagardo Festak atzo zabaldu zituen ateak. Gaur, bihar eta etzi edana eta jana ziurtaturik dago Ibarrrako plazan. Ohi bezala, kalimotxoak ere bere txokoa edukiko du Ibarrrako Garagardo Festan.

Aurtengo berrikuntza berriz, I. Mus Txapelketa izango da. Bihar, hilak 8, 16:30ean hasiko da eta bikote irabazleak 500 euro eta txapela eramango ditu etxera. 15:30ean zabalduko dute izena emateko aukera. A. I.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

### KAZETARIARIK (Erref.: 2010-LPKAZ) Berria egunkariak kazetariak behar ditu ordezkapenentarako lan poltsa osatzeko.

#### Eskatzen

- Kazetaritza ikasketak izatea
- Kazetari lanetan esperientzia izatea
- EGA edo baliokidea den euskara maila izatea

#### Kontuan hartuko da:

- Quark X Press programa erabiltzen jakitea
- Frantsesez eta ingelesez jakitea
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea

Bidali curriculumua gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora, erreferentzia zehaztuta, maiatzaren 10a baino lehen.



Albiztur eta Beizamako Udal Elkarteak Idazkari-Kontuhartzaile postua beletzeko, biarteko funtzionario baten beharra dago. Iragarria apirilaren 30eko GAO-n argitaratuta Oinarriak Udaleko webgunetan eta Albiztur nahiz Beizamako udalwebgunetan eskuratu daitezke.

Izena emateko epea hilaren 25ean amaituko da. Lan poltsa bat ere osatu nahi da maijaketa talde berdinakotako antzeko funtzioak dituzten aldi baterako langilego beharrei aurre egiteko. Lan poltsa Euskal Herriko Toki eta Foru Administrazio eremu osoan erabiliko da.



E **Elkarrizketa**

ION GURRUTXAGA » Dj Bull

L **Laburrak**IV. Arkupeko Pilota  
Txapelketan izen ematea

**ASTEASU** ■ Maiatzaren 15ean hasiko da Txapelketa eta bertan parte hartu nahi dutenek, izena emateko azken eguna hilaren 10a izango dute. Patxine tabernan, 10 euro ordainduz apuntatu beharko da. Eskuz banaka, pilota gozoarekin jokatuko dira partidak larunbat arratsaldetan. Federatuak direnak edo ez direnak parte hartu dezakete baina 15 urtetik gorakoak izan beharko dute. Bukaeran afaria eta sariak izango dira.

San Isidro eguneko afarian  
izena emateko aukera dago

**ALKIZA** ■ San Isidro eguna dela eta urtero bezela Alkizako Udalak afaria antolatuko du 21:00etan Herriko Ostatu Jatetxean. Alkizan errodaltua egotea eta baserri bezala ezagutzen diren etxeetan bizitzea beharrezkoa izango da (bakoitzetik bi pertsona). Beste edonork parte hartu nahi izanez gero gutzia ordainduta beharko du. 15 euro ordaindu beharko da eta gutzia ordaindu behar duenak 30 euro. Izena emateko epea maiatzaren 12an bukatzen da.

Kantu eta abesbatzako  
irakasle bila dabil Loatzeko

**LOATZO** ■ Loatzo Musika Eskolara, 2010-2011 ikasturterako, kantu eta abesbatzako irakasle bat behar du. Interesatuak Curriculum vitae bidali dezakete maiatzaren 30a baino lehen, Loatzo Musika Eskola, Bulandegi bidea 23, behe, 20150 Zizurkil. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943-692619 telefonora deituz edota [loatzo@udal.gipuzkoa.net](mailto:loatzo@udal.gipuzkoa.net) helbidera idatziz eskura daiteke.

'Ibailde' erakusketa  
ikusgai Kultur Etxean

**LARRAUL** ■ Eusko Jaurilaritzak ibai eta kostaldeari lotutako ekosistemen ezagupena bultzatzeko *Ibailde* izeneko erakusketa mugikorra antolatuko du. Bederatzi panel ez osatua dago eta Larraulgo Kultur Etxean ikusgai egongo da: gaur 17:00etatik 20:00etara eta larunbatean eta igandean, 11:00etatik 13:30etara zabalduko dute.



A. IMAZ

# «Kazakhstango diskotekan astean bost egunez musika jartzen ariko naiz»

**Irura** ■ Ion Gurrutxaga, 'Bull'-ek, igandean Kazakhstanera bidea hartuko du. Sei hilabetez, bertako Almaty herrian Dj lanak egingo ditu diskoteka berri batean.

## ENERITZ MAIZ

Ion Gurrutxaga (Irura, 1974) Euskal Herrian Dj Bull bezala ezagunagoa da. Nork ez du ikusi taberna, herri edo txosnaren baten barra atzean musika jartzen. Musika lagun hartuta, herri asko eta askotatik pasa da eta uda honetan hori botako du faltan. Orain, erronka berri batean sartu da. Igandean, Kazakhstanera abiatuko da Dj lanak egitera. Beste eskaintzarik ez badu, urri amaieran itzuliko da.

**Euskal Herria utzi eta 6 hilabete-tarako Kazakhstanera zoaz Dj. Nolatan jaso duzue eskaintza hori?** Gutxi gora behera duela hilabete mezu bat iritxi zitzaidan. Diskoteka batean musika jartzeko eskaintza zen. Talde kubatar batek musi-

ka zuzenean joko zuela eta haren jarraipena saltsa musikarekin egiteko izango zela. Hasieran mezuari ez nion garrantzirik eman eta prest nengoela erantzun nion. Ondorengo mezua, datuak eskatuz izan zen eta orduan jabetu nintzen serioa zela.

**Noren bidez jaso zenuen mezua?**

Urtero Kubara joaten naiz eta bertan Toulouseko neska bat ezagutu nuen. Dj-a da eta musika munduan dabil bera ere eta berak bidali zidan. Italiako produktore bat Dj baten bila zebilela eta nire erreferentziak eman zizkion. Eta onartu egin naute.

**Erraza izan zenerabakia hartzea?**

Sei hilabete izango zirela eta baldintzak zein izango ziren jakitean, pentsatzen aritu nintzen. Beraiek erantzun azkarra eskatzen zidaten. Nik hasieratik onartu egingo nuen baina inguruko jendearengana jo nuen, ea zer iruditzen zitzaien jakiteko. Inguruko iritzia ere jakin nahi nuen. Gehiengoak aurrera jarraitzeko esan dit; bi anaiek, lagunak, agian gutxienez amak, baina ongi pentsatuta baldin

badaukat, aurrera egiteko izan da erantzuna.

**Non dago Kazakhstan?**

Eskerrak interneti. Bestela maparen batean begiratu beharko nuen. Ideia bat banuen, Errusia, Pakistan inguruan zegoela. Orain internet bidez informatu naiz. Kokapena, historia, Txinarekin egiten duela muga... Entzunda neukan gauza bakarra, kirolean, txirindularitza mundutik Astana zen. Bertako hiriburua da eta Astana hitzak, hiriburua esan nahi du.

**Zehazki zein hiritarra zoaz?**

Ni noan hiriak Almaty izena du. Sagarraren herrialdea esan nahi du. Pentsatzen dut bertan sagarrak egongo direla, sagardoa ez dakit. Kar kar kar.

**Zein izango da zure lana?**

Diskoteka berria da eta guk inauratuko dugu. Kubatar musika talde batek zuzenean joko du asteazkenetik igandera. Jarraipena nik emango nioke musika jarritz itxi bitarte.

**Eta euskal musikarik entzungo du Kazakhstanen?**

Bai seguruki euskal musika entzun-

go dela, ikusi egin beharko dut non eta noiz sartu. Denetarik entzungo da baina oinarria salsa musika izango da, latindarra. Musika sartzan joan eta bertako erantzuna nolako den ikusi beharko dut. Agian saltsa gutxi eta nahi ez badut ere, musika komertzialagoa jarri beharko dut. Azkenean, entzuleak markatzen du zer nahi duen, eta taberna bete edo ez bete.

**Dantzaleku berria, musika latindarra... dena berria izango da.**

Leku berri bat, erronka berri bat eta ea jendearekin asmatzen duan. Italiar batek sortu du eta bestela ez dakit sei hilabete ondoren, zer gertatuko den. Itxi edo jarraitu egingo duen. Badakit neguan jendea ez dela kalera ateratzen. Hotz handia egiten du. Aldiz udan gaueko giroa dezente omen dago.

**Eta hizkuntza?**

Kazakhera eta errusiera dira. Hirugarren hizkuntza bezala ingeleza dute baina ez dute gustuko. Hala ere, nire inguruko jendea latinoa edo italiarra izango da eta ez dut arazorik izango. Egunerokoan zerbait ikasiko dugu.



SARIDUNAK

Gaur Ibarra ospatuko den  
VII. Garagardo Festan, afariaren sariduna

Zigor Leunda Eizmendi (Villabona)



Txokoa hitza

**E Elkarrizketa**

**ITSASO LEUNDA** » Kirolaria

# «Nire aurtengo helburua Ironcat triatloi proba bukatzea da»

**Hernialde** » Duatloian, triatloian eta txirringularitzan ari da Leunda; duatloian lau proba eta txirringularitzan bat irabazi ditu.

**IMANOL GARCIA**

Denboraldi berezia eta emaitzetan bikaina egiten ari da Itsaso Leunda (Hernialde, 1984). Duatloian parte hartu duen proba guztietan irabazi du, tartean Euskadiko Txapelketa eta Bizkaiko Txapelketa, azken hau Lekeitioko Garraitz taldearekin lehiatzen delako. Txirringulari bezala Debabarrena taldean lehiatzen ari da eta aurreko asteburuan Erdoñanan (Araba) lasterketa irabazi zuen. Baina aurtengo denboraldiko helburua triatloia da. Maiatzaren 15ean Ironcat proba egingo du eta Zarautzen jokatu den distantzia luzeko Euskadiko Triatloi Txapelketan parte hartuko du.

**Iaz txirringularitzara zuzendu zenuen denboraldia eta aurtengo duatloia eta triatloia. Zergatik?**

Batez ere lanarengatik. Lanean hasi naiz eta lan ordutegiak behar izan nau beste entrenamendu mota bat egitera. Bizikletarako egunez eta asko entrenatu behar da eta lanarekin ezin dut hori egin. Horregatik triatloia bideratu dut denboraldia.

**Eta orain duatloiko denboraldian zaude.**

Otsailean hasten da duatloiko denboraldia eta maiatza erdira arte izaten da. Orduan triatloiko denboraldia hasten da.

**Lau duatloietan parte hartu duzu, Oñati, Barakaldo, Azkoitia eta Zornotza, eta lauetan irabazi. Espere zenuen horrela ibiltzea?**

Ez nuen espero, ez. Denboraldian hasieran ez nekien duatloia egingo nituela ere. Oñatira joan nintzen pixka bat probatzera ea nola nengoen. Ikusi nuen ondo ibilintzela eta animatu nintzen beste batzuk egitera. Berez denboraldia Ironcat egitera bideratuta daukat. Luze entrenatzen ari naiz eta duatloia eta bizikleta entrenamendu bezala erabiltzen ditut, oraingoz. Gero Zarautzeko triatloian izena emanda naiz. Distantzia luzeko Euskadiko Triatloi Txapelketa da. 3 km igeri, 90 km bizikletan eta 20 km korrika da egin behar dena.

**Duatloian zirkuituan aukerarik baduzu lehenengoa izateko?**

Zirkuituko lidertzan ez noa lau probatan bakarrik parte hartu dudalako, eta parte-hartzeak asko bapilatu du. Puntuatzeko gutxienez zazpitan parte hartu behar da eta egutegia ikusita ezingo dut

hainbestetan parte hartu. Zirkuitua ez dut eramango, baina behintzat joan naizenetan irabazi dut.

**Duatloiak laguntzen du triatloirako prestatzen? Triatloiarietan ohikoa da duatloi probak ere egitea?**

Denetarik dago. Batzuk prestakuntza bezala hartzen dugu duatloia eta beste batzuk triatloia bakarrik egiten dute. Niri ondo etortzen zait. Neguan duatloia egiten duzu, forma puntua hartzen zoaz eta azkenean triatloia forma onan iristen zara. Nik helburu horrekin egiten dut behintzat.

**Zure denboraldiko helburua Ironcat egitea da: 3,8 km igerian, 180 km bizikletan eta 42,2 km korrika. Nahiko paliza, ezta?**

Bai, Ironman distantzia da eta ez dut inoiz egin. Aurtun probatzera goaz. Bukatzeko asmoarekin joango naiz. Entrenamenduak horretara bideratzen ari naiz eta horregatik luzeak egiten ditut, lanak uzten didan heinean.

**Nolakoa da proba hori? Jende askok parte hartzen du?**

Ironman marka bat da eta hor profesionalak parte hartzen dute. Ironcat Katalunian antolatzen dute eta herrikoiagoa da. Ez dago sari handirik eta profesional gutxi parte hartuko dute.

**Eta nola doaz prestaketak?**

Ez dakit gorputzak nola erantzun duen. Eguna pasatzera goaz eta ea bukatzea lortzen dudan. Gero ikusiko dut triatloiko denboraldia nolabideratzen dudan. Ondo errekuperatzen banaiz, ea Zarautzera joaterik dudan, ekainaren 13an.

**Eskualdetik beste kirolari batzuk badoaz Ironcat egitera?**

Tolosaldeko Triatloi taldeak Regillaga eta Saez joango dira.

**Zer asmo duzu Zarautzen egingo den Euskadiko Txapelketarako?**

Ahal dudan ondoen egitera joango naiz. Zarautzeko triatloia nazioarteko zirkuituan dago eta jende oso ona joango da parte hartzera.

**Euskadiko Txapelketa eskuratzeko helbururik baduzu?**

Virginia Berasategik parte hartzen badu aukera gutxi izango dira. Ikusi egin beharko da zeinek parte hartzen duen.

**Triatloian ondo ibili zara aurreko urteetan. Zein distantzietan aritzen zinen?**

Distantzia motzekoan aritzen nintzen, distantzia olinpikoa dena. Orain ikusi egin beharko da distantzia



DE PEDRO FOTOGRAFO

tzia luzekoan nola moldatzen naizen. Orain gutxi Gironako triatloia egin nuen, distantzia luzekoa. Lasai egin nuen, indarrak gordetzen, eta ondo ikusi nuen nire burua. Gustura bukatu nuen.

**Duatloia eta triatloia ez bada nahikoa, bizikletan ere lehiatzen ari zara aurtengo denboraldian. Eta gainera, igandean, proba bat irabazi zenuen.**

**«Ez dut duatloiko zirkuitua irabaziko, gutxienez zazpi probatan parte hartu behar baita»**

Debabarrena taldearekin ari naiz, baina bigarren maila batean. Lanegatik ezin dut entrenatu behar bezala bizikletarako. Igandean indartsu nengoen eta ondo ateratu zen lasterketa.

**Irabazteko asmoarekin joan zinen proba horretara?**

Taldean parte hartzen ari naiz laguntzeko. Igandean indartsu ikusi nuen nire burua eta pentsatu nuen erasotzea. Ez bazara saiatzen ez duzu lortzen-eta. 18 kilometro faltazirela ihes egin nuen eta diferentzia hartu nuen. Gero diferentzia handitzen joan zen eta hori mantendu ahal izan nuen.

**Txirringularitzari dagokionez, zerbaitetan aldatu da aurtengo denboraldia iazkoarekin alderatuta?**

Iaz presio handiarekin nengoen. Orain bi urte Espainiako txapeldua izan nintzen eta nire buruari

**«Txirringularitzan iaz presio handiarekin nengoen; aurtengoan lasaiago nabil»**

**«Asteburua ondo joaten bada, horrek indarra eta motibazioa ematen dizu entrenatzen jarraitzeko»**

presio handia sartu nion. Pentsatzen nuen ihes egiten banuen nire atzetik etorriko zirela. Aurtengo denboraldian lasaiago nabil, presiorik gabe, eta emaitzak horrela errazago iritsi daitezkeela ikusi dut igandekoa eta gero.

**Dirudienez astebururo duzu probaren bat eta aurreko asteburuan, gainera, bi irabazi zenituen eta kirol ezberdinetan. Ez da erraza izan behar hori guztia eramatea.**

Oso gogorra izaten da. Lanetik atera eta entrenatzera joan behar dut. Eta gogo gutxi ematen du. Gero asteburua ondo joaten bada, horrek indarra eta motibazioa ematen dizu entrenatzen jarraitzeko. Lanean aritzeak gogorrago egiten du gero entrenatzera joatea. Burua mila gauzetara duzu eta gauza guztietan arreta jartzea zaila izaten da.

**Ibarra**

**I. MUS** 16:30

**TXAPELKETA AZKARRA**

4 erregulara eta 5 amarroko 3 astolotara.

**500 euro + txapelak**

250 euro

150 euro

60 euro

hitza





Txintxarri Txiki abesbatzak Eguberrietan kontzertua eman zuen parrokan. HITZA

## Aisialdira zuzendutako bidaia egingo du asteburuan Txintxarri Txiki abesbatzak

**Alegia** » Sendaviva parkera eta Erriberriko gaztelura joango dira Txintxarri Abesbatzaren 50. urteurrenaren baitan.

### ERREDAKZIOA

Alegiako Txintxarri Txiki abesbatzak bi eguneko irteera egingo du asteburu honetan Nafarroara. Sendaviva parkea eta Erriberriko gaztelua bisitatuko dituzte. Txintxarri Abesbatzaren 50. urteurrena ospatzeko ekitaldien baitan sartzen da taldeko gazteenen bidaia.

Bihar abiatuko dira Alegiako kantari gazteak Nafarroako Erribera aldera. Lehendabiziko eguna Valtierako Sendaviva jolas parkean pasako dute, Bardeako paisaia atzean dutela. Abentura, atrakzio eta entretenimendurako parkea da. Haur eta helduentzat natura-

rekin bat egiteko toki paregabea da, atrakzioez gain animaliak ere bai baitituzte. Sendaviva bertako aterpetxean pasako dute gaua. Hurrengo egunean, etxerako bidean, Erriberriko gaztelua ikusiko dute.

8 eta 14 urte bitarteko haur eta gazteak biltzen ditu Alegiako Txintxarri Txiki abesbatzak. Aurtengo ikasturteari amaiera emateko, kontzertu berezia eskainiko dute datorren ekainean Alegiako kultur etxean. Une honetan emanaldi horretarako prestaketa lanean murgilduta daude.

Hemeretzi urte daramatza Txintxarri Txiki abesbatzak kantuan. Txintxarri Abesbatza Kultur Elkartearen ekimenez sortu zen, eta geroztik, Txintxarri abesbatzaren harrobia da. Duela bost urte bidaia bat egin zuen abesbatzak Barzelonako Begues herrira eta bertako Cor Montau haur

abesbatzarekin trukea egin zuten. Duela hiru urte, berriz, Jacan izan ziren, eta kontzertu bat eskaini zuten bertako Coro Albae Voces haur abesbatzarekin.

Hainbat zuzendari izan ditu abesbatzak urte guzti hauetan, gehienak alegitarrik. 2001az geroztik Tolosako Idoia Iraola Azpiroz gazteak zuzentzen du 15 ahoz-tesez osatutako abestalde.

Musika Hezkuntzan diplomatu da Iraola eta Musikaren Historia eta Zientziei buruzko lizentziatuta du. Euskal Herriko Abesbatzen Federazioak antolatutako zuzendaritza ikastaroetan, eta haur abesbatzen pedagogia eta zuzendaritza ikastaroetan parte hartu du. Berastegiko Basakaitz eta Tolosako Laskorain haur abesbatzen zuzendari izan da. Bakarlarri gisa hainbat emanaldi eskaini ditu Euskal Herrian zein Latinoamerikan.

## Poltsikoko Antzerki lehiaren azken kanporaketa

### ERREDAKZIOA

Asvineneak antolatzen duen IV. Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren laugarren eta azken kanporaketa egingo dute gaur gauean. 22:30ean hasiko da saioa eta bertan finalerdietara joango dira azken bi taldeak erabakiko dira.

Gaurkoan zazpi talderen lanak ikusi eta entzun ahaliko dituzte Adunan dagoen Asvinenea arte-eszeniko laborategira joaten direnek: Irrikamakila, Los Genios Locos, Aldatzen laguntzen, Izan gai, Cuerpo Escena, Xexenak eta Hamlet.

Ohi bezala, hainbat artista gonbidatu izango dira bertan. Tziganak dantza taldeak dantza garaikideko emanaldia egingo du. Asvineneako Dantza Afrikarra ikastaroa egiten ari direnek dantza saioa egingo dute, perkusioa zuzenean entzungai dela.

## Laburrak

### Txan Magoaren emanaldia gaur Kultur Etxean

**ALEGIA** » Txan Magoaren emanaldia ikusi ahaliko da gaur, 17:00etan, Alegiako Kultur Etxean. Iturrizahar guraso elkarteak antolatu du saioa.

### Jon Magik Erroizpe Azpiko elkartearen ariko da bihar

**GAZTELU** » Jon Magik mago irurarrak magia erakustaldia egingo du bihar, 18:00etan, Gazteluko Erroizpe Azpiko kirol eta kultur elkartearen Ondoren merienda emango dute. Kultur Batzordeak eta Elkarteke zuzendaritzak antolatu dute emanaldia.

## Eskualdeko lau herri lehiaren Herriartekoan asteburuan

### ERREDAKZIOA

Herriarteko Pilota Txapelketan eskualdeko lau herri parte hartuko dute asteburu honetan kanporaketaren itzulera partidetan eta guztiak etxetik kanpo jokatu dute. Gaur Alegiak Azkoitia jokatu du 22:00etan.

Bihar, Albizturrek Donostian jokatu du 16:30ean eta Tolosak Azpeitian jokatu du 22:00etan. Amezketak Hernanin jokatu du etzi 17:00etan. Lau herriak oraingoz kanporaketan atzetik doaz.

## Alegian eta Ikaztegiaren pilota partidak asteburuan

### ERREDAKZIOA

Hainbat partida izango dira asteburu honetan Alegian eta Ikaztegiaren. Gaur Alegiako Elorri frontoian jokatu dute kadeteek buruz buruko bi partida. 19:30etatik aurrera Intxurreko Irastorzak eta Nazabalek jokatu beharko dute.

Bihar, goizez, Ikaztegiaren izango dira, hauek ere buruz burukoak baina nagusien mailan. Lau partida guztira goizeko 10:00etan hasita. Intxurre pilota eskolako Olano, Iburguren, Erauskin eta Alonso lehiatuko dira Aurrera-Saiazeko beste lau pilotariekin. Eta amaitzeko, arratsaldean, Alegian izango dira alebin mailako partidak. Buruz burukoak izango dira maila horretako Talentu Txapelketan. 16:00etan hasiko dira eta lehenengo Intxurre taldeko Irazustabarena alegitarrik jokatu du.

## Hilberriak

### JOSE MARTIN URKIZU ARRESE

Maita, une latz hauetan bat egiten dugu zure eta sendiaren saminarekin. Besarkada goxo bat.



Uzturpe ikastolako langileak

IBARRAN  
2010eko  
maiatzaren 7an

### MILLAN TELLERIA EIZMENDI

Maiatzaren 6an hil zen, 82 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Bere arimaren zuzendaria: Imanol Uranga; emaztea: M<sup>te</sup> Teresa Perurena; seme-ahabak: M<sup>te</sup> Jose eta Fermín, Xabier eta Axun, Maita eta Pablo, Aintzane eta Maria, Ana eta Josu, Amaia eta Asier; izaskun eta joveku eta leire eta Amaia; ezkon anai-arrebak; lehengusak eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otolitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitzela GAUR OSTIRALA, arratsaldeko SEIETAN, Tolosako CORPUS CHRISTI parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Martin Jose Iraola, 7-3 esk. Oharra: Gorpuz belia Tolosako ORIA TANATORIOAN (Usabal poligonoa, 12 B) egingo da gaur, ostirala, arratsaldeko 16:45ak arte.



TOLOSAN  
2010eko  
maiatzaren 7an



### MILLAN TELLERIA EIZMENDI

JAUNA

Ni hemen egongo naiz esanda, nora joan zara, atona Millan?

Zure bilobak: Imanol, Julen, Antton, Ander, Jokin, Pablo, Maria, Lucia, Javier, Unai, Ainhoa, Beñat, Unax.



TOLOSAN  
2010eko  
maiatzaren 7an



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900







**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agurrak



### Urte askoan Manex!

Beti bezain indartsu ta irripartsu jarrai ezazu. Animo ta eutsi gogor! Besarkada ta muxu goxo pila!



### Zorionak!

Paula eta Juan (Ibarra). 50 urte elkarrekin. Besarkada pottolo bat familia guztiaren partetik.



### Zorionak!

Bentura-Juanita. 50 urte uztañien. Bejondeizuela! Zorionak!

## A Agenda

### Mahai-inguruak

- **Tolosa.** 'Emakumea eta lan bizi-tza', udaletxean 20:00etan.
- **Tolosa.** Artearen inguruko Abastos merkatuan 19:00etan.

### Antzerkia

- **Aduna.** Poltsikoko Antzerki Lehiaketako azken kanporaketa Asvinenean 22:30ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. 112.



### Zorionak!

Berastegiko sukaldari famatuaren urtebetetzean bazkariaren zain geratzen gara.



### Zorionak osaba Koko!

Segi beti bezain kapullo. Animo ta eutsi goiari. Etxekoak.



### Zorionak Iñaki!

Muxu handi bat Berastegiko mutil politenari. Libe, Nestor eta Danelen partez.

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko etzeiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...